# BIKTIMAK

## IZUAREN LEKUKO GISA

Euskal Herriko terrorismoaren biktimen testigantza lehenengo mailako ondare immateriala da. Ezinbestekoa dugu haien ekarpena, baldin eta azken hamarkadetan gertatutakoaren egiazko kontakizun historiko zorrotza sortuko badugu. Biktimek kontatutako esperientziek ulertaraziko digute nola funtzionatu zuten izuaren mekanismoek eta arazo horrek zenbateraino baldintzatu zituen milaka lagunen bizitza. Terrorismoaren biktimen testigantzak duen balio dokumentalaz gainera, haien hitzek, oroitzapenek, auzitan uzten dute herritarron portaera Euskal Herrian beldurra eta askatasunik eza nagusi izan diren denboraldi jakin batean. Horregatik guztiagatik, biktimaren begirada eta ahotsa deserosoak suerta dakizkiguke, batez ere orrialdea di-da batean pasatzeko tentazioa izan dezakeen gizartearentzat eta, hala, gure iraganaren atal beltzenetako bat ahaztu.

Horregatik, Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentro Fundazioak eta Valentín de Foronda Gizarte Historiarako Institutuak antolatzen duten jardunaldian auzi horretan sakondu nahi da. Horretarako, eztabaidan hartuko dute parte biktima batek eta terrorismoa psikologia, zinemagintza eta ikerketako kazetaritza arloetan aztergai izan duten hiru profesionalek. Pertsona horien esperientzia baliagarria izango zaigu terrorismoaren biktimen lekukotzaren garrantzia ulertu eta balioesteko gizarte demokratiko memoriadun bat eraikitzeari begira, giza eskubide eta balio demokratikoekiko errespetuan oinarrituta beti ere.

## 2016-10-28
## MIRAMAR JAUREGIA
## DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

*Antolatzaileak:*

Valentín de Foronda

UPV EHU

TERRORISMOAREN BIKTIMEN OROIMENERAKO ZENTRO FUNDAZIOA

**10:00 ETAN** Ekitaldia aurkeztuko dutenak:
- Florencio Domínguez
  *Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentro Fundazioko Zuzendaria*
- José María Ortiz de Orruño
  *Valentín de Foronda Gizarte Historiarako Institutuko Zuzendaria*

**10:10 EAN** Parte hartuko dutenak:
- Denis Itxaso
  *Gipuzkoako Foru Aldundiko Lehenengo Diputatu Nagusiordea*
- Sonia Ramos
  *Terrorismoaren Biktimen Laguntzarako Zuzendari Nagusia*

**10:30 EAN** Parte hartuko dutenak:
- Teresa Díaz Bada
  *Psikologo klinikoa*
- Iñaki Arteta
  *Zinemako Zuzendaria*

**11:30 EAN** ATSEDENA

**11:45 EAN** Parte hartuko dutenak:
- Javier Marrodán
  *Nafarroako Unibertsitateko irakaslea eta "Relatos de Plomo" proiektuko zuzendaria*
- Iñaki García Arrizabalaga
  *Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Komando Autonomo Antikapitalisten biktima*

**12:45 EAN** EZTABAIDA

IZENA EMATEKO: **inst.valentindeforonda@ehu.eus**